



GORKA ARTOLA ALBERDI Bergarako Udaleko Alkateak emandako

## DEKRETUA

2020ko ekainaren 26an emandako Dekretu baten bitartez erabaki zen aldi baterako garbiketa-premiei erantzuteko garbitzaileen lan-poltsa osatzeko deialdia egitea eta deialdia arautuko zuten oinarriak onartzea.

Oinarrietan akatsak antzeman dira. Beraz,

## ERABAKI DUT:

LEHENENGOA: Oinarrietan honako zuzenketak egitea:

- 4. puntuko bigarren pasartean honako hau adierazi beharko luke:

Lehiaketan parte hartzeko eskabideak Bergarako Udaleko Alkate-Lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta ondoko baldintza hauek bete beharko dira atzera bota ez izateko:

- 6. 1 puntuan honako hau adierazi beharko luke:

6.1. Osaera: Deituriko hautaketa-prozesuaren epaimahai kalifikatzailea ondorengoak kontuan izanda eratuko da: urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak onartutako Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateratuak 60. artikuluan ezarritakoa, eta ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoa. Epaimahaia mahaiburuak, idazkariak eta Alkate-Lehendakariak erabakiko dituen kideek osatuko dute, eta inoiz ez dira izango bost baino gutxiago. Prozesu honetako epaimahaikide izango da euskara zerbitziburua euskarazko froga baloratzeko. Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izen-zerrenda udaleko web orrian eta iragarki taulan argitaratuko dira, onartuen eta baztertuen zerrendekin batera, behin Alkatetza-Lehendakaritzak izendatutakoan.

Udalan presentzia duten alderdi politikoaren ordezkariak eta langileen ordezkariak izendatutako batek parte har dezakete begirale moduan.

- 7. puntuan, hizkuntza-eskakizunaren balorazioan, bigarren esaldiak honako edukia izan beharko luke:

Ezaguera hau egiaztatu ahal izango da Epaimahaia proposaturiko idatzizko eta ahoko proben bitartez. "Gai" edo "ez-gai" kalifikatuko da. Emaitzak bakarrik deialdi honetarako balioa izango du.

BIGARRENA: Zuzenketa horien berri ematea web orrian, deialdi honen gainontzeko informazioarekin batera.

Hau da Alkateak agindu eta sinatu duena, Bergaran 2020ko uztailaren 6an; eta nik, Idazkariak, ziurtatua.